



TOLOSAKO  
UDALA

## EZ OHIKO GOBERNU BATZARRA

2018.10.31

**Alkatea:**

**Olatz Peon Ormazabal**

**Bertaratutako zinegotziak:**

**Patxi Amantegi Zubiria**

**Nerea Letamendia Belloso**

**Iñigo Alonso Sarasibar**

**Ez bertaratutako zinegotzia:**

**Jokin Azkue Arrastoa**

**Idazkaria:**

**Begoña Garmendia Vazquez**

**Kontuhartzailea:**

**Ainhoa Molinos Zubiaurre**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko urriaren hogeita hamaikan, 08:00etan, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ez ohiko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da, eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. Onartzea Lanbidek sustatutako diru-laguntzen deialdiaren aldaketa, Tolosaldeko enpresek langabezian dauden pertsonak kontratatzeko 2018/2019ko ekitaldirako.
2. Huts deklarazioa honako lizitazio hau: Tolosako Amartz auzoko "Auzoetxe" eraikin osoa eta anbulatorioko lokalaren zatikako berregokitzeak egiteko obra-kontratua.

### **1. ONARTZEA LANBIDEK SUSTATUTAKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN ALDAKETA, TOLOSALDEKO ENPRESEK LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONAK KONTRATATZEKO 2018/2019KO EKITALDIRAKO.**

**Aurrekariak:**

1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak onartu zuen Enplegu Sustapeneko Tokiko Ekintzetarako Diru-laguntzen deialdia, zeina Lanbideko Administrazio Kontseiluak onartu zuen 2018ko ekainaren 12an egindako bilkuran (2018ko ekainaren 13an argitaratu zen EHAAn).



TOLOSAKO  
UDALA

2. Tolosako Udalak 2018ko uztailaren 11n aurkeztu zuen Eskualdeko Enplegu-programako diru-laguntzen eskaera Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aurrean.
3. Tolosako Udalak urriaren 9an jaso zuen laguntzaren ebazpena, hain zuzen, 299.007,84 euro, eta horietatik 265.000,00 euro bideratzen dira 1. mota eta 2. motakoen kontratazioetarako eta 34.007,84 euro 3. motakoen kontratazioetarako.
4. Tolosaldea Garatzen SA garapen-agentziak egingo duen Enplegunea 2018 azokaren bitartez, azaroaren 15ean 48 lanpostu eskainiko zaizkie eskualdeko langabetuei enplegu-eskaintza publikoen bidez.

2018ko urriaren 29ko Gobernu Batzarrak proposamena onartu zuen arren, Lanbidek eskatu zuen deialdian aldaketa batzuk egiteko.

Hori guztia kontutan izanik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Onartzea Lanbidek sustatutako diru-laguntzen deialdiaren aldaketa, Tolosaldeko enpresek langabezian dauden pertsonak kontratatzeke 2018/2019 ekitaldirako.

### *Deialdia*

**TOKIKO ENPRESEK LANGABEZIAN DAUDEN PERTSONAK KONTRATATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA, EHAA 2018/06/20EAN ARGITARATUTAKO ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKI-EKINTZETARAKO 2018KO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN ANPAROAN.**

#### **1.- Araudi erregulatzaileria.**

- Lanbide-EEZko Zuzendari Nagusiaren ebazpena, 2018ko ekainaren 13koa, Enplegua Sustatzeko Toki-Ekintzetarako Diru-laguntzen gainean (EHAA 2018/06/20).
- Diru-laguntzen gaineko 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa (BOE 2003/11/18).



TOLOSAKO  
UDALA

- 887/2006 Errege Dekretua, ekainaren 21ekoa, Diru-laguntzen gaineko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena (BOE 2006/07/25).
- Tolosako Udalaren eta bere Erakunde Publikoen Diru-laguntzen Ordenantza Orokorra. (GAO 2017/07/7).

## **2.- Deialdiaren helburua.**

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan inskribatuta dauden **46 langabetu** kontratatzeko erraztasunak ematea Tolosaldea eskualdeko enpresei.

Honela banatuko dira kontratuak:

2. motakoak: 40 kontratu
3. motakoak: 6 kontratu

## **3.- Aurrekontu baliabidea.**

Deialdi honetan aurreikusitako 2. motakoak, 240.000 €-ko zenbatekoa dutenak, 1100.471.01.241.00.2018 partidaren kargura finantzatuko dira, eta 3. motakoak, 34.007,84 euroko zenbatekoa dutenak, 100.471.01.241.00.2018 partidaren kargura. Diru-kopuru horiek datoz Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak enplegua sustatzeko toki-ekintzetarako 2018ko diru-laguntzen deialdiari buruzko 2018ko urriaren 3ko ebazpenean emandako diru-laguntzatik.

## **4.- Laguntzaren zenbatekoak**

### **2. MOTA**

Guztira: 40 kontratu

Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa hau izango da: lanaldi osoko sei hileko edo gehiagoko lan-kontratu bakoitzeko, gehienez, 6.000 eurokoa.

Laguntzaren amaierako zenbatekoak ez dira izango enpresak kontratatutako pertsonen truke ordaindu beharreko soldata-kostuen eta gizarte-segurantzako gastuen % 75 baino handiagoak.

### **3. MOTA**

Guztira: 6 kontratu



TOLOSAKO  
UDALA

a) 5 kontratu lanaldi osokoak, sei hilekoak edo gehiagokoak, gehienez 6.000 eurokoa diru-laguntzarekin.

b) kontratu 1, lanaldi osokoa lau hilekoa eta gehienezko 4007,84 euroko diru-laguntzarekin.

Laguntzaren amaierako zenbatekoak ez dira izango enpresak kontratatutako pertsonen truke ordaindu beharreko soldata-kostuen eta gizarte-segurantzako gastuen % 75 baino handiagoak.

### **5.- Erakunde onuradunak eta beren betebeharrak.**

Erakunde onuradunek honako betebeharrak bete beharko dituzte:

- *Dagokion tokiko erakundearen lurralde-esparruan lantokia eta jarduera ekonomikoa duten izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridikoak hartuko dira tokiko enpresatzat.*
- *Zigor larri irmorik ez izatea aukera-berdintasunaren arloan.*
- *Indarrean dauden legeria eta laneko arautegiak zein laneko arriskuen prebentziokoak betetzea.*
- *Eskabideko lan-baldintzak eta soldatak bermatzea, bat etorrira bete beharreko lanpostuari dagokion lanbide-kategoriarekin, aplikatu beharreko sektoreko edo enpresako hitzarmenaren arabera.*
- *Bermatzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasun arloko eginbeharrak betetzen direla.*
- *Berehala jakinaraztea Tolosako Udalarari diru-laguntzaren xedeari eragiten dion edozein aldaketa edo gorabehera. Era berean, Tolosako Udalarari ematea segimendu eta kontrol egokia egiteko diru-laguntzaren esleipenaren inguruan eskatzen dituen datu edo informazio guztiak.*

### **6.- Eskakizunak eta kontratazio-mota**

Kontratazioek honako ezaugarri hauek eduki behar dituzte:

- *Diruz lagundutako epeak izan behar du, gehienez, 6 hileko kontratazioa, eta egon behar du deialdiaren eremuaren barruan.*  
*Kontratu guztiek sinatuta egon behar dute abenduaren 31 baino lehen.*



TOLOSAKO  
UDALA

- *Kontratuak izan litezke lanaldi osokoak.*
- *Kontratazioak egingo dira langabetuekin, baldin eta kontratazioko unean badaude Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa inskribatuta eta 2018ko ekainaren 21ean Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan errolatuta, lehentasunezkoa delarik Tolosaldea eskualdeko udalerrri batean egotea.*
- *Kontratazio-multzoak bermatu behar du emakumeen kontratazioa, zeina gutxienez programako kontratazio guztien % 40 izango den.*
- *Ez izatea ahaidetasun-harremanik enpresaburuaren edo enpresaren kontrola duten, edo zuzendaritzako edo, hala badagokio, Administrazio Kontseiluko kideen ezkontidearekin, oinordekoarekin eta gainerako senideekin, odol- edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailaraino, hura barne. Hori egiaztatzeko enpresak erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu behar du (I. eranskina).*
- *Aurreko deialdietan lan-harremanik eduki ez izana kontratua egiten duen enpresarekin edo tokiko entitatearekin.*
- *Kontratazio horiek enplegu-sorrera garbia ekarri behar dute berekin, diruz lagunduko den kontratuaren xede den pertsona lanean hasi aurre-aurreko 3 hiletan enpresak batez beste duen langile kopuruaren gainean.*

*Halaber, 2. eta 3. MOTako kontratuak bete beharko dituzte Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendari Nagusiaren 2018ko ekainaren 13ko ebazpenaren 6.2 eta 6.3 apartatuetan ezarritako baldintzak. Ebazpen hori 2018ko ekainaren 20ko EHAAan argitaratu zen.*

## **7.- Aurkezteko tokia eta epea**

*Aurkezteko tokia:*

*-Tolosako Udaletxeko erregistroan (Plaza Zaharra z/g 20400 Tolosa).*

*-Online tramitazioa: erregistro elektronikoaren bidez:*

*Aurkezteko epea: 7 egun natural, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.*



TOLOSAKO  
UDALA

*Aurrekontu-krediturik egonez gero, onartu ahal izango dira data hori pasa ondoren, baina urte barruan aurkeztutako eskabideak eta kreditu hori agortu arte .*

*Behin eskabideak hartzeko epea bukatuta, Udalak emango du eskatutako emakidari dagokion ebazpena.*

*Kontratu guztiek sinatuta egon behar dute abenduaren 31 baino lehen.*

## **8.- Aurkeztu beharreko dokumentazioa**

### **8.1. Enpresak:**

#### *a) Kontratazioa egin aurretik*

- *Kontu korrontearen zenbakiko titularitate agiria*
- *Bere zerga-betebeharrak (DIRU-LAGUNTZAK) egunean dituelako ziurtagiria (Ogasuna).*
- *Enpresak Gizarte Segurantzako ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen agiria.*
- *Kontratazio-kostuen aurreikuspena.*
- *Bikain/Bai Euskarari ziurtagiria (baldin badauka).*

*Kontratazioa egin eta, gehienez, bi eguneko epean.*

- *Langilearen GSKo alta-agiriak.*
- *Kontratuaren zein Lanbideri egindako jakinarazpenaren 2na kopia.*
- *Alta egoeran dauden batez besteko langile kopuruaren bi txosten (GSKo RED sistema), enpresak Euskal Erkidego Autonomoan dituen lantegi guztiena: bata, kontratatutako pertsonak enpresan alta izandako egunaren aurreko hiru hilabeteko aldiari dagokiona; bestea, kontratazio-egunari dagokiona.*
- *Lan-bizitzaren txostena (kontratazio-eguneko kotizazio-kontuko kotizazio-kode bera).*

*b) Kontratazioa bukatutakoan, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du 35 eguneko epean:*

- *Nominen eta ordainketa-frogagiriaren kopiak.*
- *Bajen kopiak (GS).*



- *Gizarte Segurantzari egindako kotizazioaren buletinaren kopiak (TC1 eta TC2), hilabete guztietakoak, eta ordainketa-frogagiriak.*
- *Bere zerga-betebeharrak (DIRU-LAGUNTZAK) egunean dituelako ziurtagiria (Ogasuna).*
- *Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiri eguneratua, enpresak erakunde horrekiko betebeharrak egunean dauzkala egiaztatzen duena.*
- *Kontratazioko soldaten kostuen ziurtagiria (sinadura eta zigilua)*
- *Kontratutako pertsonaren ebaluazio-fitxa.*

## **8.2. Langabetuek:**

- *Errolda-ziurtagiria, Tolosan erroldatutakoek izan ezik.*
- *Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren ziurtagiri bat, azalduz langabezian dagoela eta izena emateko aldiak.*
- *Ziurtagiria, Hazilan eta Txertatu programan parte hartu badute.*
- *NANaren kopia*

## **9.- Diru-laguntzak emateko prozedura eta baloratzeko-irizpideak.**

*Laguntzak lehiaketa bidez emango dira, ondorengo puntuetan ezarritako prozedura eta balorazio-irizpideak aplikatuta, aurrekontu-zuzkidura eta 2. puntuan ezarritako laguntza-programako kontratazio-kopuru osoa agortu arte.*

*Kanpoan utziko dira deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten eskabideak.*

### **Eskabideak baloratzeko irizpideak**

*Balorazioa honako irizpide hauen arabera egingo da:*

- *Kontratuak 6 hilabete baino gehiagoko iraupena badu: puntu 1*
- *55 urtetik gorako pertsona bat kontratatzeagatik: puntu 1.*
- *Emakumeak kontratatzeagatik: 2 puntu.*
- *Eskualdeko langabetuak kontratatzeagatik: 1 puntu.*
- *Hazilan eta Txertatu programetan parte hartu duen pertsona bat kontratatzeagatik. 1 puntu.*
- *Tolosaldea Garatzenek antolatutako Enplegunea 2017 programan parte hartu ez duten enpresek: puntu 1 gutxiago.*
- *Bikain edo Bai Euskarari euskararen kalitate-ziurtagiria: 1 puntu.*



TOLOSAKO  
UDALA

- *Enpresa eskatzaileak 2017 – 2018ko laguntzen deialdian langabetuak kontratatzeko diru-laguntza bat lortu badu: puntu 1 gutxiago.*

**10.- Akatsen zuzenketa.** (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua)

*Diru-laguntzaren eskaerak ez baditu deialdi honetan exijitutako baldintzak betetzen, edo ez badauka exijitutako dokumentazioa erantsita, interesdunari errekerimendua egingo zaio 10 lan eguneko epean falta zuzentzeko edo aurkeztu ez dituen nahitaezko dokumentuak eramateko, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela eta eskabidea artxibatu egingo dela beste tramiterik gabe.*

**11.- Diru-laguntzaren ordainketa eta dokumentazio justifikatzailea**

*Lehenbiziko ordainketa, % 55, 8.1a eta 8.2 puntuetan aipatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.*

*Diru-laguntzaren % 45, 8.1b puntuan aipatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren.*

*Bigarren zatiaren ordainketa, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren ebazpena jaso ondoren egingo da.*

**12.- Prozedura instruitzeko eta ebazteko organo eskuduna**

**BALORAZIO -MAHAIA**

*Tolosako Udaleko Ekonomiaren Sustapeneko Departamentua izango da diru-laguntza hauek emateko prozedura instruituko duena. Departamentu horrek egingo ditu ebaluazioaren emaitza zehazten duten txostenak, osatutako espedienteak aztertu eta ebaluatu ondoren eta Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen agentziak egindako proposamena kontuan harturik. Txosten horiek erabakiko dute zein diren diru-laguntza jasoko duten pertsonak edo enpresak, bai eta horietako bakoitzari emango zaion diru-laguntzaren kopurua ere.*

*Balorazio-mahaia honako kide hauek osatuko dute:*

- *Mahaiburua: Tolosako Udaleko Ekonomiaren Sustapeneko batzordeko burua.*
- *Mahaikideak: kontratatzeko laguntzen programaren arduradun teknikoa, enplegu-saileko eskualdeko teknikari bat eta enpresa-saileko teknikari bat.*
- *Idazkaria: Tolosako Udaleko Ekonomiaren Sustapeneko Departamentuko administraria.*

*Balorazio-mahaiaren funtzioa izango da aurkeztutako eskabideak deialdi honen arabera baloratzea eta diru-laguntzak emateko proposamena egitea. Horretaz gain, justifikazio-proposamenen gaineko txostena ere egingo du.*





*Tokiko Gobernu Batzarrak ebatziko ditu eskabideak, behin horretarako osatu den balorazio-mahaiak baloratu eta gero.*

### **13.- Beste laguntza batzuekin bat etortzea.**

*Deialdi honetako 2. eta 3. motetako laguntzak ezin izango dira bateratu kontzeptu eta helburu berberetarako emandako beste edozein motatako diru-laguntza edo laguntzekin, Gizarte Segurantzak emandako hobariekin izan ezik.*

### **14.- Ez-betetzeak**

*Baldin-eta baldintzaren bat, edozein dela ere, enpresaren edo enpresa horrek kontratatutakoaren erruz betetzen ez bada eta ez-betetze horrek berekin emandako diru-laguntzaren murrizketa bat badakar, diru-laguntzaren jasotzaileari jasanaraziko zaio behar den murrizketarekin eta haren proportzioan.*

### **15.-Errekurtoak**

*Diru-laguntzen deialdia onartzen duen erabakia behin betikoa da bide administratiboan. Haren aurka, aukerako berraztertze-errekurtoa jar liteke Administrazioarekiko Auzi-errekurtoa jarri aurretik, hilabete bateko epean; edo, bestela, Administrazioarekiko Auzi-errekurtoa jar liteke Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, bi epeak kontatuko direlarik deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Hala ere, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu edo ekintza ere baliatu litezke.*

*Laguntza-deialdi honetan espresuki jaso ez den guztietarako, ebazpen honetan xedatutakoari erabaki honi jarraitu behar zaio: LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIAREN EBAZPENEA, zeinaren bidez argitara eman baitzen Enplegua Sustatzeko Toki Ekintzetarako deialdia (EHAAn 2018ko ekainaren 20an argitaratua).*

### **16.- Izaera pertsonaleko datuak babestea.**

*Diru-laguntzaren eskabidea aurkeztuta, erakunde eskatzaileak bere adostasuna ematen du eta adierazten du deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta deialdiaren zehaztapen guzti-guztiak onartzen dituela.*

*Era berean, adierazten du ezen eskabide-orrian azaltzen diren Datu Pertsonal guztiak bere baimenarekin jaso direla eta onartzen duela datu horiei informatika-trataera bat ematea eta baimena ematen duela datu horiek bakar-bakarrik udal-kudeaketarako erabiltzea, eta datuok utzi edo jakinarazi dakizkiela beste Administrazio Publikoari eta beren Erakundeei,*



TOLOSAKO  
UDALA

*Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean aurreikusitako kasuetan, 6. 1 e. artikuluan jasotakoarekin bat etorrira.”*

**BIGARRRENA.-** Deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki honen berri ematea Ekonomiaren Sustapeneko Departamentuari eta Kontuhartzaitzari.

**2. HUTS DEKLARATZEA HONAKO LIZITAZIO HAU: TOLOSAKO AMAROTZ AUZOKO "AUZOETXE" ERAIKIN OSOA ETA ANBULATORIOKO LOKALAREN ZATIKAKO BERREGOKITZEAK EGITEKO OBRA-KONTRATUA.**

**1.- IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Kontratuaren xedea:	Tolosako Amartz auzoko "Auzoetxe" eraikin osoa eta anbulatorioko lokalaren zatikako berregokitzeak egiteko obra-kontratua.
Unitate sustatzailea:	Hirigintza, Obra eta Zerbitzuak eta Ingurumeneko Departamentua.
Espedientea:	2018OABI0001

**2.- AURREKARIAK**

Lehena.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko irailaren 10ean egindako bilkuran, besteak beste, aho batez onartu zuen Tolosako Amartz auzoko "Auzoetxe" eraikin osoa eta anbulatorioko lokala zatika berregokitzeko proiektua. Proiektuarekin batera, ezinbestekoa den zuinketa-akta jaso zen espedientean, urriaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuak (SPKL hemendik aurrera) arautzen dituenak, bere 236. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Laburbildurik, proiektuak jasotako lanak ondorengo hauek dira:

Auzoetxe eraikinaren berregokitzea dela-eta, barnealde guztia eraberrituko da. Eraikinaren kanpoaldeari dagokionez, fatxadetan esku hartuko da, kanpoko arotzeria aldatuz leiho-oholen ordez pertsianak jarriz, eta fatxadak dituen kalteak konponduz, margo-lanak egiteko azkenik.

Auzoetxea, eraberritu ondoren, egun duen erabilera bera izango du. Esku-hartze honen xedea hainbat aldatetetan oinarritzen da, eraikinaren instalazioak hobetzea, barne antolamendua egungo beharretara egokitzea, erosotasuna bermatzeko isolamendua



TOLOSAKO  
UDALA

hobetzea, akaberak aldatzea, kanpoko aroztegiak ordezkatzera eta leiho-oholen ordezkariak jartzea besteak beste. Nahiz eta trenkada gehienak mantendu eta egunduen instalazio gehienak erabili, eraikuntzak, era bateko aldaketa jasango du, itxurari eta erosotasun baldintzei dagokienez.

Anbulatorioko esku-hartzearen helburua hau osatzen duten eskakizun eta instalazioak irisgarritasun araudira (68/2000 Dekretua) egokitzea da. Ateen irekierak gutxienez 90 cm-ko tarte izan dezaten, lau ale aldatu egingo dira. Gainera, egungo bainugelak bota egingo dira, gelaurre eta bainugela irisgarri bat eraikitzeke. Hauetan, hurrenez hurren, oztoporik gabeko 180 cm eta 150 cm-ko diametroan zirkunferentziak inskribatzea posible izango da. Iturgintza, saneamendu eta argindar-argiteria instalazio berriak egingo dira, dagokien guneean.

Bigarrena.- Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko irailaren 24an egindako bilkuran, obra-kontratua esleitzeko lizitazio publikoa martxan jartzea erabaki zuen eta zegokion iragarkia Kontratatuaren Profileen publikatu zen.

Hauek dira lizitazioaren oinarritzko datuak:

- CPV: 45215222-9
- Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua (BEZ barne): 348.197,15 euro.
- Balio zenbatetsia: 287.766,24 euro.
- Epea: 18 aste zuinetaren egiaztapen akta sinatzen denetik.
- Prozedura: irekia.
- Behin betiko bermea: lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren %5.
- Proposamenak aurkezteko epea: 20 egun natural.
- Proposamenak aurkezteko azken eguna: 2018ko urriaren 15a.

Hirugarrena.- Proposamenak aurkezteko epean, enpresek ez dute proposamenik aurkeztu; beraz, 2018ko irailaren 29an Kontratazio Mahaia bildu zen eta aho batez Kontratazio-Organoari aipatutako emakidaren lizitazioa huts deklaratzera proposatu zion.

### **3.-APLIKATU BEHARREKO LEGERIA**

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.

Aurreko guztia aintzat harturik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,



TOLOSAKO  
UDALA

## ERABAKI DU

**LEHENA**.- Huts deklaratzeari aipatutako obra-kontratuaren lizitazioa, 2018ko urriaren 29an Kontratazio-Mahaiak proposatutakoari jarraituz.

**BIGARRENA**.- Huts deklaratzeari berri iragartzea kontratatzailearen profilean.

**HIRUGARRENA**.- Martxan jartzea obra-kontratu berriaren jardunbidea.

**LAUGARRENA**.- Erabaki hauek jakinaraztea Idazkaritza, Kontuhartzaitza eta Hirigintza Departamentuei.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 08:30ean.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**